Astigarragako Udala
**Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención**
idazkaritza@astigarraga.net

# TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra
**Bilera-zenbakia:** 2011ICGO0002
**Eguna:** 2011-02-04
**Ordua:** 12:00
**Tokia:** Alkatetza

## Bertaratuak

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea HAMAIKABAT
- Eloy Bazan Bazan HAMAIKABAT
- Zorione Etxezarraga Ortuondo EAJ/PNV
- Mª Jesús Arruabarrena Izagirre EAJ/PNV

## Bertaratu ez direnak

-

## Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

## Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2011ko urtarrilaren 27ko aktaren onarpena** | **1** | Aprobación del acta de 27 de enero de 2011 |
| **HEA 21 – Zarkumendegiko G lurzatiaren Xehetasun Azterlana. Hasierako onarpena** | **2** | Estudio de detalle de la parcela G del Plan Parcial AIU 21 – Zarkumendegi. Aprobación inicial |
| **Lurraldearen Zatiko Planari eginiko iradokizunak berrestea** | **3** | Ratificar las alegaciones al Plan Territorial Parcial |
| **Desjabetza espedienteari hasiera. HEA 19 – Ubarburuko 22 partzela** | **4** | Incoación de expediente expropiatorio. Parcela 22 de la AIU 19 – Ubarburu |
| **HEA 21 - Zarkumendegi Plan Partzialaren 3. aldaketa zehatza. Hasierako onarpena** | **5** | Modificación puntual nº 3 del Plan Parcial AIU 21 – Zarkumendegi. Aprobación inicial |
| **Informazio, galdera-erreguak** | **6** | Información, ruegos y preeguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

**1. <u>2011ko urtarrilaren 27ko aktaren onarpena</u>**

Akta, aho batez, onartu da.

**1. <u>Aprobación del acta de 27 de enero de 2011</u>**

El acta es aprobada por unanimidad.

**2. <u>HEA 21 – Zarkumendegiko G lurzatiaren Xehetasun Azterlana. Hasierako onarpena</u>**

Alkateak Hirigintza batzordeko diktamena aurkezten du honako hau proposatuaz:

Lehena.- HEA 21 –Zarkumendegi-ko G ondoriozko lurzatia eta Peio Berrari estekatutakoaren Xehetasun Azterlana, hasiera izaeraz onartzea.

Bigarrena.- Legeak agintzen duen epean, jendaurreko erakusketa egitea, GAOn eta prentsan iragarkiak ezarriz.

Hirugarrena.- Hartutako erabakiaren berri interesdunei bakoitzari jakinaraztea.

Proposamena, aho batez, onartzen da.

**2. <u>Estudio de detalle de la parcela G del Plan Parcial AIU 21 – Zarkumendegi. Aprobación inicial</u>**

El Alcalde presenta dictamen de la comisión de Urbanismo en la que se propone:

Primero.- Aprobar inicialmente el Estudio de Detalle de la parcela G del Plan Parcial del A.I.U. 21 –Zarkumendegi-, vinculada al desguace de Peio Berra.

Segundo.- Someter el documento a información pública, durante el periodo legalmente establecido, insertando anuncios en el BOG y en prensa.

Tercero.- Notificar individualizadamente a todos los interesados el presente acuerdo.

La propuesta es aprobada por unanimidad.

**3. <u>Lurraldearen Zatiko Planari eginiko iradokizunak berrestea</u>**

Alkateak Hirigintza batzordeko diktamena aurkezten du honako hau proposatuaz:

Astigarraga Lantzen, S.A. elkarteak Foru Aldundira igorri duen Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planari egindako iradokizun txostena berrestea.

Proposamena, aho batez, onartzen da.

**3. <u>Ratificar las alegaciones al Plan Territorial Parcial</u>**

El Alcalde presenta dictamen de la comisión de Urbanismo en la que se propone:

Ratificar el informe de alegaciones al P.T.P. del área funcional Donostia-San Sebastian remitido por Astigarraga Lantzen, S.A. a la Diputación Foral.

La propuesta es aprobada por unanimidad.

**4. Desjabetza espedienteari hasiera. HEA 19 – Ubarburuko 22 partzela**

Alkateak Hirigintza batzordeko diktamena aurkezten du honako hau proposatuaz:

Udaletxeko Idazkaritza sailari eskatzea desjabetza-espedienteari hasiera ematea, HEA 19 – Ubarburu-ko 22. partzelaren gain bide-zor bat eratzeko.

Proposamena, aho batez, onartzen da.

**4. Incoación de expediente expropiatorio. Parcela 22 de la AIU 19 - Ubarburu**

El Alcalde presenta dictamen de la comisión de Urbanismo en la que se propone:

Solicitar a la Secretaría del Ayuntamiento que inicie expediente expropiatorio para la realización de un camino en la parcela 22 de la AIU 19 – Ubarburu.

La propuesta es aprobada por unanimidad.

**5. HEA 21 – Zarkumendegi Plan Partzialaren 3. aldaketa zehatza. Hasierako onarpena**

Alkateak Hirigintza batzordeko diktamena aurkezten du honako hau proposatuaz:

**Lehena.-** “Zarkumendegi” 21. Hirigintza Jarduerarako Eremuko Plan Partzialaren 3. aldaketa puntualari hasierako onarpena ematea, udal-txosten teknikoa eta jarraian adieraziko diren alderdiak bete behar direla kontuan hartuta:

- 04 planoan (Zonakatze xehatua) mugatzen diren zona guztietan baimendutako erabilerak definitu beharko dira; halaber, “E” lurzatiaren industria-erabilera mota definitu beharko da.

- Instalazioei dagokienez, gasaren hargunea egiteko modua aztertu eta erabaki beharko da eta, horretaz gain, aintzat hartu beharko da hornidura hori indartzen bada eremu horretako sagardotegientzat ere mesedegarria izango dela.

**5. Modificación puntual nº 3 del Plan Parcial AIU 21 – Zarkumendegi. Aprobación inicial**

El Alcalde presenta dictamen de la comisión de Urbanismo en la que se propone:

**Primero.-** Aprobar, con carácter inicial y condicionado al cumplimiento del informe técnico municipal y de los siguientes aspectos, la 3ª modificación puntual del Plan Parcial de la A.I.U. 21 “Zarkumendegi”:

- En todas las zonas delimitadas en el plano 04.-Zonificación pormenorizada-, deberán definirse los usos autorizados; asimismo, deberá definirse el tipo de uso industrial para la parcela “E”.

- En cuanto a las instalaciones, debe estudiarse y resolverse la forma de acometer el gas y considerar que el refuerzo de dicho suministro beneficiaría también a las sidrerías de la zona.

- Aurrekontuan ez da partida jakin bat aurreikusi zuzkidura-ekipamendu publikoa eraisteko eta ondoren egikaritzeko. Bermatu beharko da egungo instalazioa eraitsi aurretik berria eraiki eta amaitzen dela.

- En el presupuesto no se ha previsto una partida concreta para la demolición y posterior ejecución del equipamiento público dotacional. Deberá garantizarse que previamente al derribo de la instalación actual, se construya y finalice la nueva.

- 06 planoa (Lerrokadurak eta sestrak) aztertzeko, garrantzizkoa da jakitea lurzatietan soto bat edo bi eraiki behar diren edo erdisotoak geratuko diren, argi baitago planoetan azaltzen denaren arabera, gaineko errepidearen batez besteko sestra +66ko kotan dagoela, eta, aitzitik, errekastoaren tarte irekia, industrialdearen goialdean dagoena, +57ko kotan.

- En la vista del plano 06.-Alineaciones y rasantes.-, es importante saber si en las parcelas va a construirse un sótano, o dos o si van a quedar semisótanos, puesto que es evidente que, de acuerdo a lo señalado en los planos, la rasante media de la carretera superior está a una cota de +66, y en cambio, el tramo descubierto de la regata, en la parte posterior del polígono, está a una cota de +57.

- Oinezkoen segurtasuna bermatzeko, behar diren aldaketak egin beharko dira C, D eta E lurzatietako pabiloien aurrealdean 7 metroko zabalerako leku librea egiteko; horretarako, 2 metro erabili ahal izango dira oinezkoen pasabide segurua eraikitzeko, eta gainerako bost metroak jarduera horientzako aparkalekua egiteko erabili ahal izango dira.

- Con el fin de garantizar la seguridad peatonal, deberán realizarse las modificaciones necesarias para que los pabellones de las parcelas C, D y E puedan disponer en su frente de un espacio libre, de 7 metros de anchura, pudiendo utilizarse 2 metros para construir un paso peatonal seguro y los otros cinco metros, destinarse a aparcamiento de las diversas actividades.

- Errepidea, ekipamendu publikoaren eraikinaren aurrean dagoena, mendirantz mugitu beharko da eta espaloia gutxienez 4 metroko zabalerakoa egin beharko da ekipamenduaren kontra.

- La carretera, frente al edificio de equipamiento público, deberá desplazarse hacia el monte y ampliar la acera a una anchura mínima de 4 metros contra el equipamiento.

**Bigarrena.-** Dokumentua jendaurrean jartzea, GAOn eta prentsan iragarkia jarriz, 20 egun baliodunekoepean.

**Segundo.-** Someter el documento a información pública, insertando anuncio en el B.O.G. y en prensa, por el plazo de 20 días hábiles.

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Foru

**Tercero.-** Solicitar informe al

Aldundiaren Errepideen Departamentuari, Eusko Jaurlaritzaren URA Agentziari eta Añarbeko Uren Mankomunitateari txostena eskatzea.

Departamento de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la Agencia URA de Gobierno Vasco y a la Mancomunidad de Aguas del Añarbe.

**Laugarrena.-** Aplika daitekeen hirigintza-legeriari jarraiki, hartzen den erabakia interesdun guztiei banaka jakinaraztea.

**Cuarto.-** Conforme a la legislación urbanística aplicable, notificar individualizadamente a todos los interesados, el acuerdo que se adopte.

Proposamena, aho batez, onartzen da.

La propuesta es aprobada por unanimidad.

## 6. Informazio, galdera-erreguak

6.1. Tximela eta Elgopebi, S.L. auzien inguruan jasotako sententzien berri ematen du Idazkariak. Sententzi hauek betearazi egin behar direla dio, eta honetarako Ogasun batzordea eta ez ohiko osoko bilkura deituko direla.

6.2. Idazkariak Idazkaritzan hutsik dagoen 2. mailako lanpostuari jakinarazten du. Aurreko Tokiko gobernu batzarrean meritu espezifikoei buruz onartutako %30eko gutxieneko puntuazioa lanpostuan lehian aritzeko kendu egin behar dela dio.

## 6. Información, ruegos y preguntas

6.1. El Secretario da cuenta de las sentencias recibidas de los casos de Tximela y Elgopebi, S.L. Informa que hay que ejecutarlas, para lo cual se realizará una Comisión de Hacienda y un Pleno Extraordinario.

6.2. El Secretario informa en relación a la vacante de Secretaria. Señala que de los méritos específicos aprobados en la anterior Junta de gobierno hay que eliminar la puntuación mínima para concursar al puesto que se daba del 30%.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2011ko otsailaren 4ean

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**